

AFGANISTANEN AURKAKO ERASOA

«22 terrorista bilatuenen» zerrenda aurkeztu du Bush

Mundu osoko «terrorista arriskutsuenak» harrapatzeko informazio baliagarria ematen duenari diru mordoa emango diote

Erredakzioa | DONOSTIA

George Bush EEBBetako presidenteak «munduko terrorista arriskutsuenen» zerrenda aurkeztu zuen atzo. FBIk osatu du zerrenda, mundu osoan EEBBen interesen aurkako erasoak egin edo prestatzea egozten zaien pertsonekin. Izen-abizenak eta argazkiak Interneten daude ikusgai, eta susmagarriak harrapatzeko informazio baliagarria ematen duenak bost milioi dolarreko saria ere eskura dezake.

«Terrorismoaren aurkako borrokaren eraso ildo berria» izen-



SUSMAGARRIAK. FBIk prestatu duen zerrenda Interneten dago.

datu zuen EEBBetako presidentek 22 pertsona horien izen-abizenak ezagutaraztea: «Mundu guztiak jakingo du nor diren». Hala, herrialde denetako jendeak «terroristak» harrapatzen lagun dezakeelakoan dago.

Osama Bin Laden dago zerrendaren buruan, eta Bushen kosta ahala kosta harrapatu nahi du: «Bizirik edo hilik». Washingongo FBIren egoitzan, «terroristak aurkitu, atxilotu eta zigortu» egin behar direla azpimarratu zuen Bush.

Susmagarrien zerrenda luzea

Zerrendako 22 izenak lehenengoak besterik ez direla esan zuen EEBBetako presidentek, eta ikerketek aurrera egin ahala zerrenda osatuko dutela. Argazkiez gain, datu ugari aurki daitezke Interneten: garaiera, pisua, zein hizkuntza hitz egiten duten, zein herrialdeetan egon daitezkeen, zer egin izana egozten zaien... eta baita informazio baliagarriaren truke zenbat milioi eskura daitezkeen ere. Bin Laden harrapatzen laguntzen duenak, esaterako, zazpi milioi dolar lor ditzake. Hilketak egozten zaien besteen berri ematearren, berriz, bost. Webgunea ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta arabieraz dago: www.ifccf-bi.gov.

Imad Mughniah Libanoko Hizbula talde integristaren us-tezko sortzailea da zerrendako bat; 1983an EEBBetako 241 marine hil zituen atentatu suizidaren erantzuletzat jotzen dute, eta 1985eko Atenasko hegazkin bahiketa ere haren esku zegoela uste da. Bestalde, Mohamed Atef eta Aiman Al-Zawahiri egiptoarrak ere badatoz zerrendan, Bin Ladenen oso gertukoak biak; irailaren 11ko atentatuaren zerikusia dutela dio Washingtonek.

1985ean Beiruten bahitutako hegazkina, 1993ko World Trade Centeren aurkako atentatua, 1996ko Saudi Arabiako Khobar dorreen aurkako eraso eta Kenya zein Tanzaniako enbaxadetako atentatuak dira, besteak beste, susmagarriei egozten zaizkienak. Atentatu saioak ere aipatzen dira; hala nola, 1993an New Yorkeko dorre bikien aurka kamioi bonba zartarazi eta 1995ean estatubatuarrez betetako 12 hegazkintan bonbak jarri nahi izana.

1950etik «herrialdeko 10 bilatuenen zerrenda» egiten du FBIk. Jendearen laguntzaz asko atxilotzen dituzte, FBIren arabera. Robert Mueller FBIko zuzendariak Ramzi Jusefen kasua aipatu zuen: dorre bikien aurkako 1993ko atentatu saioaren us-tezko burua atzerrian atxilotu zuten, eta gero bizitza osorako kartzela zigorra ezarri zioten EEBBetan.

EEBB-EN AURKAKO PROTESTAK



PAT ROQUE / AP

FILIPINAK. Manilako EEBBen enbaxadaren aurrean itxuraz aldatutako EEBBetako bandera erretzen, atzo.



JASSIM MOHAMMED / AP

IRAK. Bagdad hirian ehunka lagun bildu ziren asteartean. Irakeko banderak eta Saddam Hussein presidentearen argazkiak zeramatzaten.

Tinko EEBBetako enbaxadaren aurrean

Atzo ere musulman ugari bildu ziren, mila inguru, Jakarta hiriburuko EEBBen enbaxadaren aurrean, EEBBen eta Erresuma Batuen eraso bateratuak salatuz. Hirugarren egunez egin zuten protesta; erasoak hasi zirenetik manifestazio jendetsuena izan zen atzokoa. Besteak beste, George Bush presidentearen irudiak eta EEBBetako banderak erre zituzten. «Amerika, terrorista!» oihukatzen zuten askok.

Polizia enbaxada aurreko protestarien aurka oldartu zen, eta gutxienez lau ikasle zauritu ziren. Enbaxadatik abiatu zen manifestazioa Legebiltzarrera joan zen gero. Lekukoen arabera, Legebiltzarreko



CHARLES DHARAPAK / AP

INDONESIA. Presidentearen Jauregiaren aurreko protesta Jakartan, asteartean.

atea botatzen saiatu ziren hainbat gazte, eta orduan Poliziak negar gasa jaurti zuen manifestarien kontra.

Bestalde, enbaxada inguruetan lehergai bat aurkitu zuen Poliziak, eta aparailua aztertzen ari zen atzo.

Indonesia da herrialde musulman populatuena: 210 milioi biztanle ditu. Agintariak egoera kontrolpean dagoela esan zuten atzo, ez dagoela larritzeko arrazoirik. Megawati Sukarnoputri presidentek ez du gaitzetsi EEBBen erasoak; are gehiago, babesa eman zion Bushi erasoak hasi baino lehen. Hainbat taldek eskatu diote Indonesiako Gobernuari Washingtonekin eta Londresekin dituen harremanak hausteko; Gazteria Islamikoren Mugimendua eta Kammi Ikasle Musulmanen Fronteak, kasu. Alabaina, Gobernuak ez du halako ezer egiteko inongo asmorik erakutsi.